

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalbatzaren 2026ko apirilaren 16ko erabakiaren laburpena. Horren bidez, zuia udalerriko kultura, kirol eta gizarte elkarteentzako dirulaguntzen 2026rako deialdia egiten da

BDNS (Identif.): 903943.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/con-vocatoria/903943>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke irabazi-asmorik gabeko elkarte, kultur elkarte, kirol elkarte eta elkarte publiko eta pribatuak, baldin eta legez eratuta/erregistratuta badaude eta egoitza soziala Zuiako udalerrian badute.

Bigarrena. Xedea

Zuiako udalerrian, kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak antolatzeko dirulaguntzak ematen laguntzea, aurrekontu-mugen barruan, eta helburu batzuk zehaztea, herritarrei, baldintza berdinetan, prestazio horiek jasotzeko aukera bermatzeko, udalaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta jarduerak osatzeko edo ordeztzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2026eko apirilaren 16an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kultura eta gizarte elkarteentzako aurrekontu-partida 334.481.000 zenbakiduna da (29.000,00 euro), eta kirol elkarteentzako, berriz, 341.481.000 zenbakiduna (26.000,00 euro), Zuiako Udalaren 2026ko ekitaldiko gastu-aurrekontutik aterata.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Urteko ekaineko azken egun baliodunerarte.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2026ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA